

Eskola eta komunitate inklusibo baterantz: Ongi Etorri Eskolara proiektua eta Familia Laguna programa

Lola Boluda Guigo

Elkarrekin Koop. Elk. Txikia

Garazi Zarauz Pensado

Elkarrekin Koop. Elk. Txikia
elkarrekin.kooptxiki@gmail.com

XXI. mendeko testuinguru globalean, beste herrialde batzuetatik Europarako immigrazioa fenomeno sozial nabarmenetako bat da. 2010 urteaz geroztik, immigrazioa geroz eta nabariagoa da Euskadiko gizartean, baita bertako eskoletan ere, aldaketa eta erronka anitzen aurrean kokatu dituelarik hauek. Erronka hauei kulturarteko ikuspegi batekin begiratzuz gero, heziketa ekarpen positiboa izan daitezke ikastetxeetarako. Betiere, beste herrialdeetako ikasleengan azaldu daitezkeen desabantailei hezkuntza-aukera berdintasunetik erantzuten bazaie, hezkuntza komunitate osotik. Idazki honetan, 10 urteko bilakaera duen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Gipuzkoako 19, Bilboko 2 eta Gasteizeko 2 ikastetxeetan martxan dagoen Ongi Etorri Eskolara proiektuaren esperientzia jasotzen da, baita honen baitan aurrera eramaten den gizarte- eta hezkuntza-akonpainamendurako Familia Laguna programa, eta honek duen eragina aztertzeko aurrera eramandako ikerketa baten emaitzak. Emaitzetan, Familia Laguna programa, familien arteko konfiantza-harremanak sustatzen, eskola eta komunitatera etorri berri diren familia etorkinen hezkuntzaren eta komunitatearen esparruko oinarritzko premiak eta bizi-baldintzak hobetzen, jarrera arrazisten prebentzioan, kulturatrukeak sortzen, euskararekiko motibazioan eta komunitatean parte-hartzea areagotzen laguntzen duela konprobatzen dute.

Gako-hitzak:

Eskola, aniztasun kulturala, familia, taldeen arteko harremanak, inklusioa.

La inmigración extraeuropea es cada vez más visible en Euskadi. Un enfoque intercultural de los retos que plantea puede representar una valiosa contribución cultural y educativa a los colegios siempre y cuando las desventajas que puedan aparecer en el alumnado originario de otros países se aborden desde la igualdad de oportunidades educativas, desde toda la comunidad educativa. Este texto recoge la experiencia del proyecto Ongi Etorri Eskola —con una trayectoria de 10 años e implementado en 19 centros de Educación Infantil y Primaria de Gipuzkoa, 2 de Bilbao y 2 de Vitoria-Gasteiz—, así como del programa de acompañamiento socioeducativo Familia Laguna, que se lleva a cabo en el marco de aquel. La evaluación realizada constata que Familia Laguna contribuye a fomentar relaciones de confianza entre las familias, satisfacer las necesidades básicas y mejorar la situación educativa y comunitaria de las familias inmigrantes recién llegadas, prevenir actitudes racistas, generar intercambios culturales, incrementar la motivación frente al euskera y a aumentar la participación comunitaria.

Palabras clave:

Escuela, diversidad cultural, familia, relaciones entre grupos, inclusión.

1. Sarrera

XXI. mendeko testuinguru globalean, beste herrialde batzuetatik Europarako immigrazioa fenomeno sozial nabarmenetako bat da. Herrialde batzuk migrazio-tradizio luzea dute, eta beste batzuek aurrekaririk gabeko hazkundea izan dute azken hamarkadetan. Mendebaldeko testuinguruan, gure existentziaren esparru guztiak biltzen dituen iraultza baten aurrean gaude, bai pentsatzeko eta jarduteko moduan eta bai besteekin harremantzeko moduan. Beste hainbat arrazoiaren artean, gertatzen ari den fenomeno hau Europako gizartea gero eta pluralagoa eta konplexuagoa bihurtzen ari delako da, migrazioaren eta kultura osatzen duten osagaien arteko aniztasunaren handitzearen ondorio (Giddens, 2000).

Kultura-aniztasuna ezaugarri duen gizarte bat eratzten laguntzen duen fenomeno hau agerian geratzen da euskal gizartean ere. Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, biztanleriara osoaren erroldatutako %12,4 atzerritar jatorriko pertsonak dira. Azken bi hamarkadei begiratuz gero hazkundea jasan duen zifra bat da. 1998 urtean atzerritar jatorriko 26.334 pertsona zeuden erroldatuta Euskadin. 2023ko urtarrilaren 1ean, 274.142 pertsona gehiago zeuden erroldatuta. Bi hamarkadetan, atzerritar jatorriko 247.808 pertsona gehiago erroldatu direlarik Euskadin (Ikuspegi, 2023).

Hainbat autore bat datoz, Europako gizartean, oro har, eta Espainian, bereziki, migrazio-fenomenoak dakartzan gizarte-erronka nagusiak honako hauek direla: gizartearen barne-kohesioa garatzea; arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borroka, nortasun berriak eraikitzea pertenezia anizkoitzetik abiatuta; eta kulturarteko herritartasuna eraikitzea (besteak beste, Ruiz-Bernardo, 2018). Hezkuntza-sistema eta ikastetxeak, gizartearen parte diren heinean, erronka eta aldaketa berrien aurrean daude baita ere, hezkuntza ikuspegi, eredu, praktika eta tresna berriak sortzeko beharra azaleratuz.

Esku-hartzeko paradigma teorikoen artean, kulturarteko ereduak da gaur egun teorialariek ondoen baloratzen dutena, hala nola, Carlos Giménez Romero (2015) eta Catherine Walsh (2010). Honako ereduak, kulturalki bereizitako subjektuen arteko eragin-truke positiboari erreparatzearen berezitasuna dakar eta trukeen kalitatea eta harremanetarako simetria hobetzea bilatzen du (Giménez Romero, 2015). Berezitasun hau ordea, ez da berez ematen den zerbait, sustatu beharra dago, eta bidean, taldeen edota pertsonen arteko gatazkak sortu ohi dira (Barquín, 2006).

Paradigma horren baitan, 2014an, Aitor Ikastolan (Donostiako Egia auzoko ikastetxe publikoa), gizarte-arloko ama profesionalen talde bat, gerora Ongi Etorri Eskolara izenez ezagutuko zen proiektuko hainbat ekintza antolatzen hasi zen, ikastetxean kulturarteko ikuspegia txertatzeko helburuarekin. Lehenik, bolondres, eta, 2016tik, profesional gisa, Elkarrekin ikerketa eta gizarte-ekintzako kooperatiba txikiaren bitartez.

Kooperatiban aurrera eramaten dugun lanak helburu zehatz bat du: gure eskolek, auzoek eta udalerriek osatzen duten kultura-aniztasuna komunitatearentzat abantaila izan dadin lan egitea. Honako lana, kulturarteko ikuspegi batetik abiatzen dugu, Maza Bustamantek (2020) jasotzen duen moduan, kulturartekotasuna onartu beharreko eta modu proaktiboan jorratu beharreko aukerak eta konplexutasunak planteatzen dituen errealitate estrukturaltzat ulertuta, eta justizia sozialaren, aukeraberdintasunaren, askatasun individualaren eta balio demokratikoen oinarriko irizpideetatik abiatuta. Kulturarteko lanketa hau, gure kasuan, partaidetza-ekintzako prozesuen bidez gauzatzen da. Prozesu hauek, alde batetik, kultura-aniztasuna ikusarazten eta balioan jartzea dute helburu, eta, bestetik, herritarrak kulturarteko harremanak sustatzearen garrantziaz sensibilizatzea, eskola-eremuan eta komunitate-eremuan. Prozesu hauek, aldi berean, arrazakeriaren aurkako pedagogia eta bizikidetzajarrerak sustatzen laguntzen dute.

Kooperatibaren proiekturik ezagunena Ongi Etorri Eskolara da. Proiektu honen parte da, aurrerago azalduko dugun Familia Laguna gizarte- eta hezkuntza-akonpainamendu programa. Euskadiko 23 ikastetxetan dago martxan: Gipuzkoako Haur eta Lehen Hezkuntzako 19 ikastetxetan, Arabako 2 ikastetxetan eta Bizkaiko 2 ikastetxetan.

2. Ongi Etorri Eskolara proiektua ikastetxeetan

Ongi Etorri Eskolara proiektuak¹, izenak adierazten duen bezala, beste herrialde batzuetatik iritsitako familia immigrante guztiei ongietorria eman nahi die, eta prozesuak sortu nahi ditu familia horien egokitzapena egokia izan dadin eta eskola-komunitate osoa inplikatu dadin eskola inklusibo baterantz aurrera egiteko, eskola inklusibo horrek, aldi berean, komunitatea ere hezi dezan. Ikuspegi integrala duen proiektua da, eta hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin batera lan egiten du: ikasleak, irakasleak, irakasle ez diren profesionalak, familiak eta eragile komunitarioak.

Proiektuaren bidez aurrera eramaten den lana sei ekintza-arlotan banatzen da. Honako arloak, praxian identifikatutako beharren arabera zehazten joan gara eta elkarrearen esku-hartzeko metodologia gidatu dute:

- **Ikerketa**

Proiektua ikastetxe bakoitzaren testuinguru eta beharretara egokitzeko, aurrera eramaten ditugun lehendabiziko lanak, beharren diagnostikoa eta ikastetxeetako kulturarteko ikerketak dira. Hauen bidez, ikastetxeetako kultura-aniztasunaren osaeraren argazki bat burutzen da, ikastetxeetako familien (haur eta heldu) jatorriari, hizkuntzei,

¹ <https://www.ongietorrieskolara.org>.

migrazio-ibilbideei eta euskararen ezagutzari buruzko datuak jasotzen dira. Datu horiek, aurrera eramango den kulturarteko lanaren oinarri izango dira.

- **Ikastetxeetako harrera-jarraibideak diseinatzea**

Ikastetxera iritsi berri diren eta jatorri immigrantea duten ikasleei eta haien familiei harrera egokia egiteko jarraibide eraginkorrak izatea funtsezkoa da, honakoak eskolara egokitzeko eta ikasle horien eskola-arrakasta bermatzeko. Beharrezkoa da, halaber, jarraibide horiek modu bateratuan abian jartzea, eta harrera, ez dadila profesional edota agente bakoitzaren irizpidearen edo sentsibilitatearen arabera izan, baizik eta abian jarriko diren jarduera-ildo argi batzuei erantzutea. Ikastetxeek ez dute beti behar adina denbora edo baliabide jarraibide horiek berrikusi eta antolatzeke. Horregatik, Ongi Etorri Eskolara proiektutik laguntza eta akonpainamendua eskaintzen diegu ikastetxeei zentzura egokitutako harrera-protokoloak diseinatzen, abian jartzen eta garatzen. Honako planak, partaidetza-prozesuen bidez osatzen ditugu.

- **Hezkuntza-komunitatearen sentsibilizazioa eta formakuntza**

Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza eskola inklusibo baterantz urratsak emateko gakoetako bat da:

“Hezkuntza inklusibo batera bidea egiteko, eztabaida eskolatik bertatik abiatu behar da, komunitate osoan, irakasleen prestakuntzan bertan, curriculumean, materialak eta baliabideak prestatu eta aurkeztean, eskolan eta gizartean arrakasta izateko espektatibak zabalitzean, emaitzak ebaluatu eta kontrolatzean, erabiltzen den lengoaiaren eta eskolan sustatzen diren balioetan eta jarreretan dauden jarrera eta praktika baztertzailuez kontzientziatzeko” (Essomba, 2012: 132).

Proiektua abian jartzen den ikastetxeetako irakasleen beharren inguruan gehien errepikatzen den eskaeretako bat ikasgelan eta egunerokotasunean kulturarteko tresna eta praktika egokiak abian jartzeko prestakuntzarena da. Hala, proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako irakasleei eta familiei zuzendutako saioak aurrera eramaten ditugu. Ikasleriari dagokienez, sentsibilizazio saioak egiten ditu ikasgeletan. Dinamika parte-hartzaileen bidez, aniztasun kulturala ezagutzea eta balioan jartzea, zurrumurruen, aurreiritzien eta estereotipoen aurkako estrategiak, eta arrazakeriaren aurkako pedagogia lantzen ditugu.

- **Gizarte- eta hezkuntza-akonpainamenduaren bidezko esku-hartzea: Familia Laguna programa**

Lan-gainkargagatik eta baliabide faltagatik, ikastetxeek aukera gutxi dituzte familiekin lan egiteko eta hauek eskola-prozesuan parte hartzeko edo gehitzeko estrategiak diseinatzeko. Programa

honen bidez, erantzuna eman nahi zaie seme-alabak eskolan matrikulatzen dituzten beste herrialde batzuetatik etorri berri diren familien beharriari eta hezkuntza-komunitatearen beharriari batzuei (eremu komunitarioa hezkuntza-komunitate horren zati gisa ulertuta), elkarrekin komunikatzen diren bi gune horietan kulturartekotasuna eta bizikidetzaren sustatzeko.

- **Elkarte eta mugimendu komunitarioarekin lankidetzaren**

Elkarrekin kooperatibaren eskolaren eta eskolaren ingurune komunitarioaren arteko loturaz arduratzen dugu. Urte hauetan zehar, auzoen eta ezaugarri ezberdinak dituzten udalerrien aniztasuna ikusarazteko eta balioesteko hainbat ekintza aurrera eramaten ditugu proiektuan.

Askotan artea kulturarteko lotura gisa erabiliz egin dugu. “Lamiak eta lloronak” (2020) ekimenaren kasuan, pinturaren bidez, elkarrizketa bat sortu genuen Donostia, Zarautz, Ordizia eta Andoaingo hainbat jatorritako pintoreen eta bizilagunen artean. “Gure lurra” ekimenean berriz (2021), jatorri ezberdinetako Donostiako hamar argazkilariren parte hartzearen bidez, migrazioa eta identitatearekin lotutako gaia jorratu genuen, erakusketa ibiltari bat osatuz. Harrera ona izan duen beste ekimen komunitario bat “Su artean, gure artean” izan da. Ekimen honek hirugarren edizioa du eta 2022tik aurrera egiten da elkarte gastronomikoekin elkarlanean. Gastronomiaren bidez, proiektuan parte hartzen duten auzo eta udalerrien kultura-aniztasuna ikusarazi eta balioetsi nahi da, eta dagoeneko mila pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

Hainbat ekintza antolatzearekin batera, proiektuan eragile komunitarioekin lankidetzaren sareak ehuntzeko lana egiten dugu, auzo edo udalerririk bakoitzean egiten diren ekimenak aprobetxatzeko, elkarlanean aritzeko eta aurrera eramaten diren ekintzetan kulturarteko ikuspegia txertatzen saiatzeko. Hala nola, jai batzordeekin, aisialdi taldeekin, auzo-elkarteekin eta euskararen aldeko batzordeekin.

3. Familia Laguna programa

3.1. Abiapuntua

Familia Laguna hezkuntza- eta komunitate-esparruan garatzen den kulturarteko familia-akonpainamendu programa bat da². Programa honen bidez, harremanetan jartzen ditugu beste herrialde batzuetatik etorri berri diren familiak adin bereko seme-alabak dituzten tokiko familiekin, eta prestakuntza, orientazioa, tresnak, topaketak eta jarduerak eskaintzen dizkiegu, gizarte- eta hezkuntza-akonpainamendua abiapuntu hartuta, familia berriek

² <https://www.ongietorrieskolara.org/zertan-datza-familia-laguna/>.

(jatorri immigrantea dutenek) harrera egokia jaso dezaten, haien arteko harreman-eredu berriak sor ditzaten (kulturarteko harremanak) eta iritsi berri diren familiak euskarara eta euskal kulturara hurbil daitezen.

Harrera eta akonpainamendua eskaintzerako orduan, eskoletara eta udalerrietara iritsi berri diren familia etorkinen honako beharrezane bide eman nahi zaie:

- **Oinarrizko baliabideak eskuratzeko informazioa eta aukerak**

Beste herrialde batzuetatik etorri berri diren familiek aurre egin beharrek hainbat alderdi dituzte. Lehenengoa oinarrizko premiak betetzearekin lotuta dago, hala nola elikadura, atsedena, eta osasun ona izatea. Premia horien asebetetzea, lana, etxebizitza eta osasun- eta hezkuntza-sistemarako sarbide bat lortzearen mende dago. Familia horietako asko ezaugarri soziopolitiko desberdinak dituzten herrialdeetatik datoz, eta ez dituzte harrera-gizartearen ezaugarriak ezagutzen; horrek zaildu egiten die baliabide horiek eskuratzeko. Adibidez, nora jo behar den enplegu-eskatzaile gisa agertzeko, zer egin ikasketak homologatzeko, zein urrats eman behar diren seme-alabak eskolaratzeko eta abar. Aurrekoari hainbat diskriminazio-sistema gehitzen zaizkio, gure gizartean nagusi direnak eta pertsona horiek baliabide horiek eskuratzeko are gehiago zailtzen dutenak. Hala nola, beren legezko egoera erregularizatzeko bete behar dituzten baldintzak (atzeritarrei buruzko legea).

- **Komunitate berria ezagutzea eta bertara egokitzea**

Familia iritsi berriek egokitu behar duten beste aldaketa bat errealitate soziokultural/komunitario berria da, beste kultura batek (elikadura, ohiturak, erlijioa, balioak), hizkuntzak eta funtzionamendu sozialak osatzen dutena, jatorrizko herrialdeaz bestelakoa. Egokitzapen horretan funtsezkoa izango da komunitate hartzaileak egingo duen harrera. Kulturarteko ereduaren arabera, ezinbestekoa da ahalegina bi noranzko izatea. Hau da, komunitateak familia horiei arreta ematea, ongietorriak sentiaraztea, komunitatearen kultura, tokiko hizkuntza eta gizarte-funtzionamendua erakustea, eta bakoitzak dituen pribilegioez jabetzea, familia iritsi berri askoren zailtasun-egoerekin enpatizatzeke. Era berean, beharrezkoa da familia iritsi berriak interesa agertzea eta komunitate berrira egokitzeko ahalegina egitea, bere nortasuna, kultura eta jatorrizko hizkuntza alde batera utzi gabe.

Hizkuntza ikastea familiek komunitate berria ezagutzeko eta bertara egokitzeko duten behar nagusietako bat da. Askok ez dakite euskara existitzen denik Euskal Herrira iristen diren arte, eta askok zailtasun gisa bizi dute. Horregatik garrantzi handikoa da familia horiei hizkuntzaren historia eta hizkuntza ikastearen garrantzia transmititzea, familia eta haien seme-alaben inklusiorako tresna gisa.

- **Pertsonen arteko eta taldeen arteko harreman berriak garatzea**

Harremanak izatea pertsonen oinarrizko beharra da. Bizi behar duten auzoan edo hirian pertsonen arteko eta taldeen arteko harreman berriak ezartzea ezinbestekoa da familia iritsi berrientzat, bai beren osasun mentalerako eta ongizate pertsonalerako, bai egunerokotasunari aurre egiteko. Taldeen arteko harremanek aukera emango diete familiei informazioa eskuratzeko, oinarrizko baliabideak ezagutzeko eta komunitate berriaren funtzionamendua ezagutzeko. Azken batean, harreman horiek familia horien aukerak areagotzea dakarte. Gainera, taldeen arteko harremanek, bizikidetzeta eta inklusioa sustatuko duten harreman-eredu berriak sortuko dira. Alderdi hori bereziki beharrezkoa iruditzen zaigu mendebaldeko gizartean, ia ez baitago harreman horizontalik eta hurbiltasunik jatorri desberdineko pertsonen artean (jatorri edo kultura bereko familien artean ezarri ohi dira). Eta ematen direnak, berriz, elkarbizitzari laguntzen ez dioten harreman asimetrikoak sortzen dituzten laguntza- edo botere-harremanekin batera ematen dira.

- **Seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzeko eta ikastetxean modu aktiboan parte hartzeko beharra**

Familia horientzat ezinbestekoa da eskolarekin komunikatzea, hezkuntza-sistemak nola funtzionatzen duen jakitea eta seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzen jakitea (eskubideak eta betebeharrak), bai seme-alaben hezkuntza-ikaskuntzan inplikatzeko, bai eskola inklusiboa sortzen laguntzeko. Familia horiek hezkuntza-komunitatearen parte sentitu daitezen, desberdintasunak aitortu behar dira, eta eskolako jatorrizko kulturak balioetsi eta ikustarazi.

- **Komunitatearen parte sentitzeko eta komunitate-eremuan modu aktiboan parte hartzeko beharra**

Familiek hezkuntza-prozesuan duten inplikazioarekin batera, inguruan duten komunitatearekiko lotura eta bertan parte hartzea da familia horien beste beharretako bat; izan ere, inguruan dugun komunitatearekin partekatzen ditugu espazioak, baliabideak eta aukerak, beste gauza askoren artean, eta haien garapenak eta ongizateak ere bertan bizi diren pertsona guztien parte-hartzea eskatzen dute. Parte-hartze horri oso lotuta dago kide izatearen sentimendua; horrela, familia horiek zenbat eta harrera, balorazio eta aintzatespen handiagoa izan, orduan eta gogo handiagoa izango dute komunitatean inplikatu eta ekarpenak egiteko.

Bederatzi ikasturte hauetan zehar, 1.500 familia inguruk aktiboki parte hartu dute programan. Horietatik erdia tokiko familiak dira, eta beste erdia, komunitatera iritsi berriak. Familien jatorria askotarikoa izan da, 34 herrialdek ordezkatzeko dituzte. Programa Gipuzkoan garatu da orain arte, Andoain, Donostia, Errenteria,

Ordizia, Irun eta Zarautzen. Horreko lurraldean, 19 ikastetxek dute zuzeneko lotura programarekin; 14 sare publikoak dira eta 5 itunpekoak. Aurreko ikasturtean berriz, programa Euskadiko hiru lurraldeetara zabaltzeko pausoa eman zen, Arabako Adsis Fundazioaren eta Bizkaiko Aldaika Elkartearen bitartez. Elkarrekin Kooperatiban zuzenduko dugun proiektu honetan, bi elkarte horiek izango dira beraien lurraldean proiektua garatzeko arduradunak.

3.2. Programaren helburuak

Programaren helburu orokorra, hezkuntzaren eta komunitatearen esparruan, kulturarteko akonpainamendu familiar prozesuak sustatzea da. *Kulturarteko akonpainamendu familiarra. Hezkuntza- eta komunitate-eremuko Familia Laguna programaren gida metodologikoa* dokumentuan (Elkarrekin Koop. Txikia, argitaragabea) jasotzen den moduan, zazpi helburu zehatz barnebiltzen ditu (1. koadroa).

1. Koadroa. Familia Laguna programaren helburuak, eremuka
Proiektu familiarra
Tokiko familien eta jatorri desberdineko familien artean kulturarteko harremanak eraikitzea: <ul style="list-style-type: none"> • Eskolara iritsi berri diren familiei harrera egokia ematea, zeinetan kontuan hartuak eta entzunda sentituko diren. Ikastetxeko familien arteko gertutasun harremanak sustatzea. • Kulturarteko harremanak ezartzeko aukera emango duten topaguneak eta konfiantza-guneak bultzatzea.
Informazioa eta orientazioa
Programan parte hartzen duten familientzako prestakuntza, sentsibilizazioa, informazioa eta aholkularitza eskaintzea: <ul style="list-style-type: none"> • Familiei prestakuntza eta tresnak eskaintzea, akonpainamendu prozesuak aurrera eramateko eta kulturarteko harremanak arrakastaz sortzeko. • Iritsi berri diren familiei ikastetxearen funtzionamenduari eta seme-alaben hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa eta aholkuak ematea. • Familiei hezkuntza- eta udal-baliabideei buruzko informazioa eta aholkularitza (lan-arlokoak, osasun-arlokoak, etxebizitzakoak, legezko egoera, prestakuntza, asoziazionismoa, aisialdia eta denbora libre) eskaintzea. • Kasuen eta beharren jarraipena egitea eta udal-baliabideetara bideratzea.
Sare sozialak
Eskolara iritsi berri den familiaren gizarte-sarea zabaltzeko prozesua erraztea: <ul style="list-style-type: none"> • Familiak sentsibilizatzea kulturarteko harremanak sustatzeko beharraz eta iritsi berri diren familien harreman-sareak handitzen laguntzea. • Iritsi berri diren familien sare soziala zabaltzea, eskolako familien, auzoko taldeen, elkarten eta eragileen bitartez.
Elkarbizitza komunitate-espazioetan
Auzoan edota hirian kulturarteko harreman-ereduak sustatzea eta ikusaraztea: <ul style="list-style-type: none"> • Kulturarteko harreman-ereduak sustatzea eta ikusaraztea. • Etnozentrismoa hausten duten eta jarrera arrazistak murrizten dituzten kultura/ezagutza trukatzeko guneak sustatzea. • Komunitatearen parte-hartzea sustatzea, eta, horrekin batera, komunitateko kide izatearen zentzua eta gizarte-kohesioa.
Euskarara eta euskal kulturara gerturatzea
Iritsi berri diren familiak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko prozesua sustatzea, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa errazteko estrategia gisa: <ul style="list-style-type: none"> • Iritsi berri diren familiei euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko tresnak eta baliabideak ematea. • Iritsi berri diren familiei euskara aukera moduan har dezaten, euskarak gizarteratzeko, seme-alaben hezkuntzan eta etorkizun soziolaboralean garrantzia handia duela adieraztea. • Euskararen ezagutza sustatzea, komunitatearen parte-hartzea, komunitateko kide izatearen sentimendua eta gizarte-kohesioa sustatzeko. • Hurbiltasunezko harremanak ahalbidetzea euskaraz hitz egiten duten familiekin, konfiantzako harremanen bidez kultura eta hizkuntza ezagutzea ahalbidetzeko. • Etorri berrien jatorrizko kultura eta hizkuntzen aitortza egitea eta balioan jartzea, euskal identitate pluralaren parte bezala.
Aisi inklusiboa
Hainbat jatorritako familiei aisialdi eta denbora libre inklusiboko aukerak ematea eta jarduera horietan parte hartzea motibatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Zentroak, eragileak eta erakunde publiko eta pribatuak sentsibilizatzea, beste herrialde batzuetatik etorritako familientzat aisia eta denbora libre eskuragarri egitearen garrantziaz. • Familia horientzat aisialdiko eta denbora libreko aukerak sortzea eta parte-hartzea sustatzea. • Ikastetxe, eragile eta erakunde publiko eta pribatuak sentsibilizatzea, jarduerak programatzeko eta eskaintzeko orduan jatorri desberdineko familiek izan ditzaketen kezak eta interesak sar ditzaten eta edukiak egokitu ditzaten inklusiboagoak izan daitezen (hizkuntza, irudiak, izena emateko moduak).
Herritar aktiboen partaidetza
Familiengan parte-hartzea eta herritartasun aktiboa sustatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Iritsi berri diren familiak kontzientziaztea seme-alaben hezkuntza-prozesuetan parte-hartze aktiboa izatearen garrantziaz. • Familia etorri berriak herritar aktibo izatera motibatzea, ikastetxeko eta komunitateko organo eta batzordeetan parte hartuz (elkarrekin, aisialdiko taldeak). • Komunitate- eta udal-jarduera zehaztetan parte hartzea motibatzea, kulturen arteko elkarreraginerako espazioak sortuz. • Elkarrekin sentsibilizatzea eta baliabideak ematea familia horien parte-hartze aktiboa errazteko: haurtzaindegia jartzea, ordutegiak kontuan hartzea edo irisgarritasuna sustatzea. • Kultura-aniztasunarekin lan egiten duten hirugarren sektoreko elkarte eta erakundeekin lankidetzan aritzea, familia horien eskubideen aldeko bideak eta sinergiak sortzeko.

Iturria: egileek egina.

3.3. Programaren ekintza-printzipioak

Gida metodologikoan jasotzen den bezala (Elkarrekin Koop. Txikia, 2022), gizarte- eta hezkuntza-programa honen puzzlea osatzen duten bost pieza nagusiak definitzea da honakoa ulertzeko modu erraz eta zehatz bat:

- **Akonpainamendua**

Pertsonen oinarritzko premiak asetzea eta kolektibo zaugarriari bizi-baldintzak hobetzea helburu duen izateko eta jarduteko modu gisa ulertzen dugu akonpainamendua. Programan parte hartzen duten pertsonen oinarritzko eskubideak asetzea bermatzen duen estrategia metodologikoa da, elkartruke parekide batean oinarrituta dagoena (profesionalak, familiak eta parte-hartzaileak), bidea elkarrekin egiteko eta elkarrekin adostutako bizi-bidaia bat esperimintatzeko ideiarekin. Kasu horretan, bertako familiak, iritsi berriekin batera, bizikidetzak eraldatzen joango diren harremanak eraikitzen joango dira, bai hezkuntzan, bai komunitatean. Horregatik, hurbileko harremanak estereotipoak hausteko eta kulturen arteko elkarrekintzako eredu komunitarioak sortzeko erabiltzen dituen estrategia da akonpainamendua. Horrez gain, ezberdinen arteko lankidetzak praktikak proposatzen ditu, komunitatearen eguneroko bizitzan espazio propioa aurkitzeko.

- **Kulturartekotasuna**

Kulturarteko ekintza lurralde batean dagoen aniztasuna kudeatzeko modu bat da, pertsona desberdinen kontaktua bultzatzen duena, oinarritzko irizpide batzuetatik abiatuta. Justizia soziala, aukera-berdintasuna, askatasun indibiduala eta balio demokratikoak kulturarteko ekintza definitzen duten elementuak izango litzateke. Giménez Romero-k (2003) dioen moduan, kulturarteko ereduak gizarte inklusibo baterako herritarrak heztea dela jasotako berdintasunaren, desberdintasunaren eta eragin-truke positiboaren printzipioetan oinarritzen dena. Ildo honetan, kulturarteko ereduak praktikan jartzea borondate pertsonaletik haratago doa kontua dela ulertzea eta honako ereduaren helburua botere-harremanetan errotutako gizarte-egitura koloniala zalantzan jarri eta eraldatzea dela (Walsh, 2010).

- **Familia**

Azken urteetan, ikasle guztien errendimendu akademikoa areagotzen duten hezkuntza-politikak garatu dira, familientzako hezkuntza-programak sustatuz eta komunitateak eskolan parte hartuz. Familiak eta komunitateko beste kide batzuek ikastetxeko jardueretan zuzenean parte hartzea, eskola-orduetan edo eskolaz kanpo, baliabide bereziki baliotsua da haur guztiek eskolan arrakasta izan dezaten eta gizarte-kohesioa indartzeko. Era berean, familia etorkinen parte-hartzea sustatzea da, hala nola, etorkinen eskola-arrakastan eta eskola inklusiboak sortzeko helburuan eragiteko estrategiarik garrantzitsuenetako bat.

- **Hezkuntza-esparrua**

Gaur egun, nazioarteko komunitatearen artean aho batez kalitateko, kulturarteko eta inklusiboko hezkuntza-eredua sustatzeko borondatea dago. Gizarte-inklusioari esker, pertsona gehiagok parte har dezakete ezagutzaren ekonomia lehiakor eta dinamikoaren garapenean eta gizarte-kohesio handiagotzean. Hezkuntza inklusiboari esker, baztertuak izateko arrisku handia duten ikasleek beren ikaskuntza hobetu ahal izango dute, eta, beraz, beren bizi-kalitatea. Baina hezkuntza inklusiboak ez die bakarrik ikasle zaugarrienei egiten mesede, hezkuntza-komunitate osoari baizik (Solla, 2013).

Eskolan kulturarteko hezkuntza eta hezkuntza inklusiboa abian jartzeko, faktore erabakigarrietako bat familiek lan egitea da. Euskadiko hezkuntza-sistema hobetzeko planaren (2016) helburuetako bat da gero eta inklusiboagoak diren komunitateak eraikitzen aurrera egitea, eta familien, irakasleen eta ikasleen nahiz hezkuntza- eta gizarte-eragileen inklusio- eta partaidetza-prozesuak indartzea (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila: 35).

- **Euskara**

Hizkuntza funtsezko faktorea da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta hizkuntza menderatzeak eragin zuzena du eskola-arrakastan. Hizkuntza ere oztupo izan daiteke familia etorkinen eta ikastetxeen artean. Desberdintasun sozioekonomikoak, deserrotzea, desberdintasun juridikoak, ikasteko eredu eta bizimodu desberdinak eta horiek jasotzen dituen hezkuntza-ingurunea ere ikaskuntza-prozesuan modu inklusiboan edo baztertzailan eragiten duten faktoreak dira. Horregatik da hain garrantzitsua faktore horiek detektatzea eta eskolan inklusio-prozesuak abiaraztea, komunitatean eragin dezaten. Euskal eskolan, prozesu horiek bermatu beharko lukete, alde batetik, familia guztiak eskolan eta komunitatean sartzea bizikidetzak erraztuz; eta, bestetik, kultura eta hizkuntza bat, euskara, zaindu eta partekatzea, horrek ere zailtasunak baititu hizkuntza ezagutzen ez duten familien eta ikasleen etorrerarekin euskerarengan eraginik ez izateko. Familia horiek euskara aukera gisa, eta ez zailtasun gisa, ikusteko motibatzea gakoetako bat da, gure ustez, haien inklusioa, komunitateko kide izatearen zentzua eta Euskadiko seme-alaben etorkizunerako aukera-bermatzeko.

- **Eremu komunitarioa**

Programa honek ekintza komunitarioaren ikuspegitik egiten du lan, hau da, "pertsona eta talde batzuk, aldi berean espazio bera partekatzen dutenak, partaide izatearen sentimendu kolektibo bat garatzen dute eta beren gizarte-eraldaketako eragile aktibo bihurtzen dira" (Essomba, 2012: 87). Hori bai, komunitatea elkarreraginean dauden oinarritzko lau elementuren inguruan eratzen den errealitate gisa identifikatuta (Gomá, 2008):

- Bere bizi-kalitatea hobetzeko ekintzen eta erabakien subjektu eta protagonista izateko gaitasuna aitortzen zaion pertsona-taldea

- Komunitatea osatzen duten pertsonen artean partekatutako identitate komunitarioa.
- Interakzio-mekanismo eta -prozesuak, gizarte-laguntza, elkarrekiko lotura eta elkarrekikotasun-harremana.
- Lurralde-errotzea, ekintza partekaturako tresnak dituen espazio fisiko batean.

Kulturarteko ekintza komunitarioko programa bati buruz hitz egitea harreman dialektikoa proposatzea da, non komunitatea ezinbesteko baldintza baita kulturartekotasuna lortzeko, eta, aldi berean, komunitatea lurralde horretan ezartzen den kulturarteko dinamikaren beraren emaitza da. Familia Laguna programan gauzatutako ekintza komunitarioaren eredia Bartzelonan aplikaturiko proposamenarekin identifikatzen da, ekintza komunitarioko lau helburu giltzarritan oinarrituta (Morales Morales eta Rebollo Izquierdo, 2014):

- Plangintza kolaboratiboan eta eragile komunitarioen arteko koordinazioan oinarritutako prozesuak eraikitzea (profesionalak eta hiritarrak).
- Herritarrak ahalduntzea banakako eta taldeko erantzukizun-prozesu batean.
- Bizi-baldintzak eraldatzen dituzten bizikidetz-espazio komunitarioak diseinatzea, zaurgarritasun-egoeren aurrean aukera berriak sortzeko.
- Inklusioa sustatzea (soziala, kulturala, funtzionala), komunitate horretan bizi diren pertsona guztien ekintzaren printzipio gisa.

3.4. Akonpainamendu-ereduaren printzipioak

Programa honetan, gida metodologikoan jasotzen diren (Elkarrekin Koop. Txikia, 2022), bederatzi ekintza-printzipiotan oinarritutako akonpainamendu-eredua aurrera eramaten da. Horietako batzuk autore erreferenteek egindako proposamenetan oinarritzen dira, hala nola, Planella (2020: 22-23):

- **Justizia soziala, kulturartekotasuna, inklusioa eta komunitatean oinarritutako laguntza**
Akonpainamendua justizia sozialaren printzipiotik abiatzen da, lurralde batean bizi den pertsona orok bere bizitzan zoriontsu izateko oinarritzko beharrak aseta izatea eskubide unibertsaltzat hartzen baitu. Kulturartekotasuna, hau da, lurralde berean bizi diren kulturen arteko elkarrekintza, eta elkarrekiko errespetutik eta elkarriketa inklusibotik eraiki diren kultura-adierazpen partekatutak sortzen dituena, auzoko kultura-aniztasunak eskaintzen digun aukera gisa integratuko da akonpainamendu-prozesuan. Ikluspegi inklusiboa, hezkuntzarena (4. art.) baita hiri jasangarriena ere (11. art.), 2030eko Agendaren Garapen Jasangarriko helburuetan markatua (Nazio Batuen Erakundea, 2015), programaren gizarte- eta hezkuntza-ekintzaren ezaugarri bat izango da.

- **Erabaki pertsonal batean oinarritutako akonpainamendua**

Goikoetxea eta Pascual-ek (2002) adierazten duten moduan, behin baino gehiagotan, programa sozialak ez dira aukera pertsonal batetik abiatzen, baizik eta betebeharrak instituzional batetik. Horregatik, Familia Laguna programan parte hartzen duten familiek beren borondatez hartuko dute erabakia, inolako presio edo inposaketarik gabe, eta laguntza prozesu horretan parte hartzeko interesa erakutsiko dute.

- **Proiektu propio batek gidatutako bidaia partekatu batean oinarritutako laguntza**

Gizarte- eta hezkuntza-akonpainamenduaren prozesua bi alderdiren artean (kulturarteko bitartekaria eta familiak) adostutako akordiotik sortzen da, etorkizunean (pertsonala edo familiarra) bizi izan nahi dugun proiektu horretara elkarrekin bidaiatzen hasteko (Planella, 2020). Familiari bere egunerokoan informazio garrantzitsua ematea da elkarrekin aurrera egitea, hau da, komunitate-espazioak partekatzea (patioa, plaza, parkea, ludoteka, kiroldegia, liburutegia) edo kulturarteko familien artean aisialdiko jarduerak egitea Kulturarteko bitartekaria, familiak bezala, lagungarri izango da familia-proiektu bakoitza errealitate bihurtzeko.

- **Informazioan eta orientazioan oinarritutako laguntza**

Eguneroko bizitzan, pertsona guztiok etengabe behar dugu oinarritzko behar pertsonalekin lotutako hainbat gairi buruzko informazioa. Informazioa ez ezik, kasu askotan haratago ere jotzen dugu, eta gure eguneroko lanean hartu behar ditugun funtsezko erabakietan laguntzeko moduko konfiantzazko norbait bilatzen dugu. Gure kasuan, lurralde ezezagun batera iritsi berri diren familiek lan egitea, neurri handi batean, informazio- eta orientazio-beharrak asko handitzen ditu. Hainbat gairen inguruan egiten dira kontsultak: hezkuntza, osasuna, lana, erregularizazioa, aisialdia eta kultura, besteak beste.

- **Gizarte-sare batean oinarritutako akonpainamendua**

Akonpainamendua tokian tokiko familia bat etorri berri den beste familia batekin lotzen duen prozesu baten bidez egiten da, komunitatean erreferente izateko. Hortik abiatuta, hasiera batean, elkar ezagutzeko eta uneak eta espazioak partekatzeko prozesua hasiko da, pixkanaka bi familien gizarte-sarea zabaltzen lagunduko duten baterako jarduerak antolatuzko.

- **Eremu komunitarioetako bizikidetzan oinarritutako akonpainamendua**

Auzoa (komunitatea) pertsonak bizi diren eta bizi-behar gehienak betetzen dituzten leku naturalizat hartzen badugu. Akonpainamendu-prozesua aukerak eraikitzean oinarrituko da, lurralde horretako bizilagun guztien artean kulturarteko

bizikidetza lortzeko. Bidezkoena izango da espazio publiko komunitarioen erabilera sustatzea, bai irekiak (plazak, parkeak, kaleak), bai itxiak (haurren eta gazteen aisialdirako zentroak, emakumeen etxea, osasun-zentroa, liburutegia, kiroldegia), elkar ezagutzeko, konektatzeko, sareak sortzeko, laguntzeko eta lankidetzan aritzeko gune baliagarri bihurtzen baitira (Klinenberg, 2018). Tokian tokiko familiek funtsezko eginkizuna bete dezakete komunitatean sartu berri diren familiek, auzoko bizilagun guztientzako lekuak direla ulertzen laguntzeko eta zerbitzu publiko horiek erabiltzen laguntzeko. Gainera, gero eta autonomia handiagoz erabiltzea eta etorri berri diren familien parte-hartzea sustatzea.

- **Euskal kultura eta hizkuntzara hurbiltzean oinarritutako akonpainamendua**

Akonpainamendua euskal kulturarekiko eta euskararekiko (komunitate horretako hizkuntza gisa) nortasunaren printzipioan sustatzen da. Euskara funtsezko elementutzat ulertzen da beste herrialde batzuetatik etorritako haur eta familien aukera berdintasuna eta inklusioa lortzeko. Eskolan, komunitatean eta Euskal Autonomia Erkidegoko lan eta gizarte arloan.

- **Aisia inklusiboan oinarritutako akonpainamendua**

Akonpainamendu-prozesuek bizilagun berrien garapen-eremu guztiak hartzen dituzte, eta, sozialki onartzen denez, aisialdia, bizitzarako ikaskuntzak ahalbidetzen dituen eta hiri inklusiboagoak eraikitzen laguntzen duten ekintzak sustatzen dituen denbora-espazio handi bihurtu da. Horregatik, akonpainamenduak aisialdi hezitzaileko jarduerak (kirol ekitaldiak, antzezlanak) egiteko aukera eman behar die komunitateko familia guztiei.

- **Parte-hartzean eta herritartasun aktiboan oinarritutako akonpainamendua**

Udalerriko bizimodu, tradizio, irudikapen eta adierazpen kulturalen aniztasuna ezagutzea eta haien adierazpenak eta elkarbizitzarako aukerak bultzatzea (Remírez eta Leconte, 2018). Akonpainamendu-programa honek parte hartzeko espazio iraunkorretan (espazio komunitarioak, auzo elkarteak, gizarte elkarteak) edo puntualetan (auzoko festak, San Juan jaiak, inauteriak, Euskararen Eguna, 11 Kolore) parte-hartzea erraztuko du, baita herritar aktiboan jardutea ere komunitatearen erabakiak hartzeko erakunde eta espazioetan. Eskubideen eta betebeharren berdintasuna ere sustatuko du, baita komunitatean ere, eta arrazismoaren aurkako hezkuntza sustatuko du, elkarteekin lankidetzan, gizarte-kohesiorako elementu gisa.

3.5. Prozesuan esku-hartzen duten eragileak

Programaren garapenean hezkuntza komunitateko agente anitzen inplikazioa ezinbestekoa da:

- Udaletxeak eta beste eragile publikoak: Donostiako, Andoingo eta Errenteriko udalak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte eta Politika Saila (Irungo, Bilboko eta Arabako programetan) eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Elkarrekin Koop. Elk. Txikia: kulturarteko bitartekari profesionalak, koordinatzaileak, administratzaileak eta bitartekari naturalak.
- Ikastetxeetan matrikulatuak dauden etorkin jatorriko haurren familia boluntarioak.
- Ikastetxeetan matrikulatuak dauden tokiko haurren familia boluntarioak.
- Hezkuntza-zentroko zuzendaritzak, irakasleak eta irakasle ez diren langileak.
- Hezkuntza-zentroetako guraso-elkarteak.
- Ikastetxeetako eta komunitateko elkarte eta eragileak, arlo anitzekin loturikoak, besteak beste, hezkuntza (berritzeguneak, Euskal Herriko Unibertsitatea), haurrak eta gazteria, giza eskubideak, kulturartekotasuna eta arrazakeria (SOS Arrazakeria, Bidez Bide), euskara (Bagera, Lau Haizetara), berdintasuna (Parean), komunikabideak (*Irutxuloko Hitz*).
- Kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren esparruan lan egiten duten komunitateko eragileak: Albaola Itsas Kultur Faktoria, Cristina Enea Fundazioa, Chillida Leku, Gipuzkoa Basket, Irrien Lagunak, Kromosoma Tailerrak, Real Sociedad, Real Unión, San Telmo Museoa, Zientzia Museoa, besteak beste.

4. Familia Laguna programaren emaitzak Donostian

Elkarrekin Kooperatibak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, aurrera eramandako ikerketarekin, Familia Laguna programak estrategia metodologiko gisa duen eragina ebaluatu du Donostiako ikastetxeetan (Jimenez Jimenez, Boluda eta Planella, 2020). Ikerketaren helburuaren ondorioak izan dira:

- Familien arteko akonpainamendu-prozesuan oinarritzko elementuak zein diren identifikatzea.
- Gizarte- eta hezkuntza-akonpainamenduan sortutako harremanaren bidez lortutako ikaskuntzak identifikatzea.
- Euskara migratzen duten familiek komunikazio-hizkuntza erlazionaltzat ulertzen duten aztertzea.
- Familiek komunitate-bizitzan duten gizarte eta kultura partaidetzaren maila zehaztea.

Ikerketan, programan parte hartutako 180 familiek parte hartu zuten, tokiko 90 familiek eta jatorria beste herrialde batean duten 90 familiek; haur eta lehen-hezkuntzako 150 profesionalek, 5 auzotako (Antigua, Amara Berri, Gros, Intxaurren eta Egia) 7 ikastetxetakoak; 25 ordezkari eremu anitzetako eragileetakoak: unibertsitatea (Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea), hezkuntza formaleko zentroak (Easo Politeknikoa, Nazaret Ikastetxea), euskararen sustapenean dabiltzan elkarteak (Bagera, Hasi

eta Ikasi), auzo elkarteak, arrazakeriaren aurkako eragileak (SOS Arrazakeria), gizarteratzean jarduten duten eragileak (Caritas, Emaus) eta ikerketa jorratzen duten eragileak (Asmoz Fundazioa).

Bertan jasotako emaitzak, ikerketa-prozesuan eraikitako zazpi analisi-kategorien arabera aurkezten dira:

1. Akonpainamendua oinarrizko sei elementuren fusioaren bidez eratzen da

Kulturarteko familia-harremanak, familien arteko informazioa eta orientazioa, bizikidetzarako gune komunitarioak, aisialdiko jarduera inklusiboak, kulturarteko eragileen sarea eta hezkuntza-tresna inklusiboak.

2. Familien arteko lotura sendoa lortzeko bizi-proiektu propioak eraikitzea bermatzen die komunitatera iritsi berri diren familiei

Programak familia parte-hartzaile gehienek (%95) arteko harremanak eraikitzea lortzen du. Horietako askok konfiantzazko harremana eratzen dute (%62). Eta %33k akonpainamenduzko harremana mantentzen dute programan zehar. Elkar ezagutzeak eta konfiantzazko harreman bat eraikitzeak, familia bakoitzak besteekiko dituen aurreiritziak haustea eta auzoan bizi-proiektu propioak eraikitzeak aukerak areagotzea ekartzen du. Horren bidez, dituzten sare solidarioak ehuntzen jarraitzeko aukera ematen du:

Gertutasuna izan da gehien lagundu gaituena, txikien bidez erraza baita patioan beste amekin egotea, horrela lotsa galtzen duzu. (Juana, jatorri immigrante duen familia)

Beti duzu euskari bat zuri laguntzeko prest. (Fatima, jatorri immigrante duen familia)

Tokiko familien ustez, harreman horien bitartez, familia iritsi berri batzuek bizi dituzten egoera prekarioak zuzenean ezagutzea dakarte, eta harrera-gizarteak desegokitaz jotzen zituen portaeren aurrean dituzten arazoak ulertzeko eta haiekin enpatizatzeak aukera ematen du:

Ez zen puntuala goizetan, eta hori ez zitzaidan ondo iruditzen... Baina, ondoren, programan ezagutu ginenean, kontatu zidan gauzez egiten zuela lan etxe batean adineko pertsona bat zaintzen, eta justu iristen zela haurra eskolara eraman ahal izateko... eta orduan ulertu nuen zergatia. (Maite, bertako jatorri duen familia)

3. Familien arteko informazio- eta orientazio-trukeak aukera berriak sortzen ditu hezkuntzaren eta komunitatearen esparruko oinarrizko premiak asetzeko eta bizi-baldintzak hobetzeko

Udalerrietara iritsi berri diren familiek askotan ez dute hizkuntza ezagutzen eta ez dute sarerik zalantzak argitzeko edo komunitatean eguneroko bizitzako oinarrizko alderdietan erabakiak hartzeko. Ikuspegi horretatik, familien arteko harremana

oinarrizko zutabea da edozein zalantzaren aurrean erantzuteko:

Idatzi edo deitu egiten nion, eta bera beti han egoten zen galderaren edo arazoren baterako. (Rosa, jatorri beste herrialde batean duen familia)

Iristen direnean, ez dute egungo laguntza-sistema osoa ezagutzen, eta, are gutxiago, laguntza horiek eskuratzeko behar diren tramiteak nola egin behar diren; tokiko familiek edota udalerrian denbora bat daramatenek oinarrizko informazioa eta orientazioa ematen kolaboratzen dute, kanpoko laguntza ez balitz eskuraezinak izango liritekeen aukera horietara iristeko:

Ez nekien jantokiko bekarako eskatzen zituzten paperak lortzen, eta N. lagundu ninduen eta [Foru] Ogasunera joan zen nirekin batera. (Meriem, jatorri beste herrialde batean duen familia)

Bestalde, balio handia du ikastetxeko irakaskuntza prozesuaren funtzionamenduari lotutako alderdietan, hala nola, hizkuntza, etxerako lanak, kultura-jarduerak edo eskolaz kanpoko jarduerak:

Euskararen eta etxeko lanen gauza asko ulertzen lagundu digu. (Julia, jatorri beste herrialde batean duen familia)

Ikastetxeko kultura-jardueri buruzko informazioa, Olentzerorentzat erabiltzen den arropa bezala. (Yan, jatorri beste herrialde batean duen familia)

Azterketa kuantitatibotik, datuek adierazten dute familien %81rentzat partekatutako informazioak balio handia edo oso handia duela oinarrizko premiak asetzeko eta hezkuntza-baldintzak hobetzeko. Familiek komunitate-bizitzari dagokionez partekatzen duten informazioaren baliozkotasunari buruzko datuek gogobetetze-maila handia adierazten dute: batez besteko 3,04 puntukoa (1-4 eskala batean). Nabarmenezkoa da familien arteko sozializazioa sustatzen duen komunikazioa dagoela auzoko eta hiriko hainbat espaziotan eta, horrez gain, jarduera soziokulturalen anitzak egitea sustatzen du (solasaldiak, museoak, antzerkia, musika):

Hori da adiskidetasun-harremana, ez gara bakarrik eskolan geratzen, baizik eta hondartzara joaten gara eta hurrek asko gozatzen dute elkarrekin. (Eduarne, bertako jatorri duen familia)

Hurbiltasun-harremana dugu, ez eskolan bakarrik, baizik eta kafe bat hartzeko geratzen gara... gure gauzei buruz hitz egiten dugu... (Maria, jatorri beste herrialde batean duen familia)

Harreman handia egin dugu eta plan batzuk egin ditugu elkarrekin, adibidez, Kutxa Espaziora joatea. (Miren, bertako jatorri duen familia)

Laburbilduz, programa honen bizitza-urteetan esan dezakegu informazioa eta orientazioa laguntza-tresna baliagarriak direla familia iritsi berrien inklusio-prozesuan, bai eskola-eremuan, bai komunitate-eremuan.

4. Espazio publiko komunitarioek eta programak proposatutako aisialdiko jarduerak familien

arteko sare soziala eraikitzen dute: pertsonen artekoa, taldeen artekoa eta kolektiboa

Gune komunitarioen erabilerak (kultura-, kirol- eta jolas-zentroak) eta programan planteatutako aisialdi-jardueren erabilerak kasuen %65ean familien sare soziala zabaltzea sustatzen du, baina, hala ere, programako bikotekideaz gain, beren sare soziala gehiago zabaldu ez dutela adierazten duten %35a dugu. Talde nagusiak jarduera horiei balio handia ematen die:

Oso gustura goaz Albaolara, Aquariumera... (Jenny eta Edurne)

Jarduera oso onak, herriko jende gehiago ezagutzeko izena eman dut. (Jamila, jatorria beste herrialde batean duen familia)

Irteera dezente egin genituen..., oso interesgarriak. (Aitor, bertako jatorria duen familia)

Etengabeko komunikazioa Whatsapp-etik, eskolaren inguruan, irteerak... Zientzia Museora joan ginen. (Carmen, jatorria beste herrialde batean duen familia)

Halere, badago beste talde bat, harremanaren lorpenik eza azal dezaketen hainbat egoera problematiko identifikatzen dituen (denbora falta, baliabide gutxi, hizkuntza, covid-19a):

Haien etxean bazkaltzen egon gara, eta haiek gurean..., baina oso zaila da hizkuntzaren bidez komunikatzea lortzen ez badugu. (Ainhoa, bertako jatorria duen familia)

Harremana txikiagoa izan da, lana aurkitu duelako eta egun oso okupatuta dagoelako. (Maite, bertako jatorria duen familia)

Proiektuak auzoetako elkarteekin lan egiten du, kulturarteko ikuspegi hori ahalik eta jarduera gehienetan txertatzeko. Programako familiek handitu egin dituzte beren harreman-sareak eta jarduera ludiko-festibalean edo aldarrikapen eta gizarte jardueretan parte hartu dute: danborrada, jai herrikoiak, herri-ekimenak, mugimendu feminista... Halaber, handitu egin da baliabide publikoen erabilera, hala nola haur- edo gazte-aisialdirako zentroak, liburutegiak edota kultura-zentroak.

Sei urte hemen, eta inoiz ez nintzen San Juan sua ikustera joan, ez nuen inor ezagutzen, eta uste nuen soilik antolatzen zutenentzat zela... (Mohamed, jatorria beste herrialde batean duen familia)

5. Akonpainamendu-prozesuak euskal kulturarenganako hurbilketa adiskidetsua eragiten du, eta euskara komunikazio-hizkuntza gisa identifikatzen du komunitateko sozializazio-prozesuan

Maiztasunen azterketak adierazten du jatorri immigrantea duten familien %45ek euskal kulturara eta euskarara hurbilpen-maila handia edo oso handia lortzen dutela, %28k harreman txikia izan dutela, eta gainerakoek (%27)

harrera-komunitatearen berezko kultura berri horretara hurbiltzea ez dutela lortu. Komunitate elebidun baten (euskara eta gaztelania) eskaera soziolinguistikoari erantzuteak hasierako inpaktua izaten badu ere, Familia Laguna programak euskaraz bizi diren familiekin harreman egonkorra izateko eskaintzen duen aukerak erraztu egiten du hizkuntza berri horrekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua garatzea.

Programa gauzatzen den hezkuntza eta komunitate eremuan, euskara ikaskuntza eta komunikazio sozialerako hizkuntza da. Errealitate horretatik abiatuta, familiek pixkanaka ulertzen dute hizkuntza menderatzea estrategia interesgarria izan daitekeela seme-alaben eskola-errendimendua hobetzeko eta etorkizun akademikoan, lanekoan eta sozialean aukera-berdintasuna bermatzeko. Hona hemen ulermen hori berresten duten bi adierazle: lehenik eta behin, jatorri immigrantea duten 30 familia baino gehiagok eman zuten izena euskara-ikastaroetan eta, gainera, programako familien %90ek parte hartu zuela euskarazko jardueretan:

Nik azpimarratu nahi dut aurten animatu egin garela eta bi familiok euskaltegian izena eman dugula... eta S.-k gauza asko erakusten dizkidala... (Cristina eta Magnolia, jatorria beste herrialde batean duen familiak)

6. Programan parte hartzeagatiko gogobetetze-maila oso handia da, eta oso lagungarria da kulturarteko bizikidetzarako

Familia Laguna programaren bidez, familia-esparruan eta komunitatean duten parte-hartzea gogobetetze handiarekin edo oso handiarekin balioesten dute parte hartu duten familia gehienek (%80). Programak sustatutako harremanen eta jardueren bidez, familia horien ahalduntzea eta eskola-komunitateko kide izatearen sentimendua handitzeaz gain, komunitateko gainerako kideek kultura guztien balioari buruz duten pertzepzioa aldatzea dakar.

5. Ondorioak

Ikerketan ateratako emaitzak oinarri hartuta Familia Laguna programak hezkuntza eta komunitatean duen eraginari dagokionez, bost ondorio nagusi jasotzen ditugu.

- Akonpainamendu-prozesua honako printzipioetan oinarritzen dela: elkar entzutea, etorkizuneko proiektua, harremana, enpatia, erresilientzia eta parte-hartzea. Printzipio horiek hiru testuingurutan aplikatzen dira (familian, eskolan eta komunitatean), eta lau ekintza-arloren bidez garatzen dira: informazioa eta aholkularitza, kultura eta hizkuntza trukea, saretzea eta komunitatea eta herritarren parte-hartzea.
- Familia arteko konfiantzazko harremanak sendotzeak kolektibo migratzailearekiko

aurreiritziak gainditzen laguntzen duela, eta jarrera arrazistak prebenitzeko balio duela jasotzen dugu. Emaizta horiek nazioarteko ikerketen ildotik doaz, kolektibo ahulei komunikazio egonkorreko loturak eskaintzeak elkarrekiko konfiantzazko harremanak eraikitzen dituela adierazten baitute, aurreiritziak ezabatzen eta diskriminazioa saihesten dutenak (Gollin, Jedwab eta Vollrath, 2013).

- Kulturarteko familia-laguntzari esker eguneroko bizitzako egoera kritikoak gainditzen direla, etnozentrismoa hausten laguntzen dela eta (iritsi berrien) familien ongizatea handitzen dela ondorioztatzen dugu. Izan ere, ikerketa honetan lortutako datuek erakusten dutenez, akulturazio-prozesuak eskatzen dituen eguneroko bizitza-aldaketen aurrean (sozialak, kulturalak eta psikologikoak), askoz ere modu atseginagoan egiten da programa honetan parte hartzen duten familientzat, tokiko familien erosotasun komunitarioko eremua partekatu baitezakete (Berry eta Sabatier, 2011).
- Euskara gizarteratzeko tresna baliagarria dela ondorioztatzen dugu. Izan ere, emaitzen arabera, euskarazko komunikazio-guneak partekatzeko, jarduera soziokulturaletan parte hartzeko edo ikaskuntza-ikastaroak egiteko aukera izateak lagundu egin du ulertzen euskara ikasteak aukera berdinak emango dizkiela komunitate hartzailean.
- Akonpainamendu-prozesuak familia iritsi berrien parte-hartzea auzoko jarduera soziokulturaletan handitzen duela ondorioztatzen dugu. Izan ere, emaitzek kuantitatiboki eta kualitatiboki jasotzen dutenaren arabera, programako familia parte-hartzaileek, jardueretan (ludikoak, festakoak, kulturalak, kirolekoak eta sozialak) parte hartzea handitu dute, baita hurbileko baliabide publikoen erabilera ere (haur-liburutegia, haur eta gazteentzako zentroa, kiroldegia, kultur-etxea).
- Ondorio orokor moduan, nazioarteko eta tokiko beste ikerketa batzuekin bat etorri, esan daiteke gizarte- eta hezkuntza-arloko akonpainamendua estrategia metodologiko egokia dela bizikidetzak hobetzeko eta auzoko bizilagunen artean gizarte-kohesio handiagoa lortzeko, eta komunitate-mailan eguneroko bizitzako esparru guztietan herritartasun aktiboa sustatzeko.

6. Etorkizuneko erronkak

Proiektua boluntariatatik sortu zen, Donostiako eskola txiki batean, eta hainbat zentro eta udalerritara zabaldu da; lehenik, Gipuzkoara, eta, aurretik, Euskadiko hiru lurraldeetara. Kooperatibarentzat, ikaskuntzaz bateriko bidea izan da, eta lorpenak egiaztatzen arren, hezkuntza eta inklusioari dagokionez oraindik erronka askori heltzeko beharra ikusten dugu. Hezkuntza-komunitatean landu beharreko erronken artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Ikastetxeen arteko ikasleen banaketa orekatu bat egitea. Batetik, jatorri immigrantea duten ikasleak

ikastetxe berean pilatzeak segregazioa sustatzen duelako, eta, bestetik, ezin direlako kulturarteko prozesuak abian jarri, ikastetxeetan kultura-aniztasuna ez badago.

- Ikastetxeek ez dute baliabiderik eskolan kultura-aniztasunaren tratamendu egokiari aurre egiteko, eta hori da, hain zuzen ere, eskola inklusiborantz joateko erronka dakarten beste kezketako bat.
- Beharrezkotzat jotzen da, halaber, kulturartekotasuna bi norabideko prozesu gisa ulertu dadin sentsibilizatzea. Harrera egiten duen gizarteak beste kulturak ezagutzeko eta aitortzeko bidea ere egin behar du, baita eskolako eta komunitateko gizarte- eta kultura-errealitate berrira egokitzeko ahalegina ere. Horrexegatik, irakasleen kulturartekotasunaren arloko prestakuntza espezifikoak (trebakuntza akademikoaren barruan) eta eskola-komunitate osoaren sentsibilizazioa etorkizuneko erronkatzat hartzen dira.
- Familia migratuek eskolan parte hartzeak, honakoen ahalduak eta eskola-komunitateko kide izatearen sentimendua handitzearekin batera, komunitateko gainerako kideek kultura guztien balioari buruz duten pertzepzioa aldatzea dakar. Ongi Etorri Eskolara proiektuan parte hartzen duten eskolek, helburu horrekin, beren curriculum-gaitasunen barruan, kulturarteko jarduerak egiten dituzte, tokiko eta ikasgelako jatorri desberdineko familien parte-hartzearekin. Honakoa, *Eskola inklusibo baterako gida Donostian. Orientabideak eta praktika onak* (Boluda et al., 2020) jasotako praktika on bat da, zeina Donostiako zazpi eskolarekin egin ziren eztabaida-taldeetan identifikatuta zen. Gida horretan, eskolarentzako erronka garrantzitsutzat jotzen zen familia migratuek eskola-komunitatean duten parte-hartzea areagotzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan euskara komunikazio-hizkuntza da eskolan, eta euskararen ezagutza eskola-arrakastaren giltzarrietako bat da. Hizkuntza menderatzea, beraz, haurrentzako aukera-berdintasunaren bermeetako bat da lan- eta gizarte-etorkizuneari. Jatorri immigratzailea duten ikasleen eskola-porrota eta etorkizuneko gizarte-arrakalak saihesteko, lehentasunezkoa da ikasleentzat eta familia migratuentzat euskara eskuragarri egiteko estrategiak bilatzea.

Esker ona

Artikulu hau amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan zehar proiektu honen oinarriak osatzen lagundu diguten pertsonei: Aitor Ikastolaren hasierako guraso-taldeari, proiektua beren ekintzen artean sartu duten erakundeak; bereziki, Donostiako Udaleko Kultura Aniztasuneko Departamentuari, bera izan baitzen proiektuaren alde egin zuen lehena; EHUKo Joxe Ximenez-i, programaren metodologiari buruz ematen digun aholkularitzagatik, eta lantaldea osatu duten kide guztiei. Baita ikastetxeetako langileei eta, batez ere, programan parte hartu duten familiei ere, horiek baitira bidean lagundu digutenak.

Aipatutako bibliografia

- BARQUÍN, A. (2006): "Eskola eta euskara: etorkinen seme-alaben integrazioarako giltzarriak", *Jakingarriak*, 58. zb., 34.-43. or.
- BERRY, J. W. eta SABATIER, C. (2011): "Variaciones en la valoración de las actitudes de aculturación: sus relaciones con el bienestar psicológico", *Revista Internacional de Relaciones Interculturales*, 35. bol., 5. zb., 658.-669. or.
- BOLUDA, L.; ZARAUZ, G.; MIKEO, D. eta JIMENEZ-JIMENEZ, J. (2020): *Eskola inklusibo baterako gida Donostian: orientabide eta praktika onak*.
- ELKARREKIN KOOP. ELK. TXIKIA (argitaragabea): *Kulturarteko akonpainamendu familiarra. Hezkuntza eta komunitate eremuko Familia Laguna programaren gida metodologikoa*.
- ESSOMBA, M. À. (2012): *Inmigración e interculturalidad en la ciudad: principios, ámbitos y condiciones para una acción comunitaria intercultural en perspectiva europea*, Acción Comunitaria y Socioeducativa bild., 14. zb., Bartzelona, Graó.
- GIDDENS, A. (2000): *Il mondo che cambia: come la globalizzazione ridisegna la nostra vita*, Bolonia, Il Mulino.
- GIMÉNEZ ROMERO, C. (2003): "Pluralismo, multiculturalismo, e interculturalidad: propuesta de clarificación y apuntes educativos", *Educación y Futuro. Revista de Investigación Aplicada y Experiencias Educativas*, 8. zb., 9.-26. or.
- (2015): "Promoviendo la convivencia ciudadana intercultural en barrios de alta diversidad: ideas y experiencias para una praxis comunitaria", *Cuadernos Manuel Giménez Abad*, aparteko 4. bol., 48.-68. or.
- GOIKOETXEA, E. eta PASCUAL, G. (2002): "Aprendizaje cooperativo: bases teoricas y hallazgos empiricos que explican su eficacia", *Educación XXI. Revista de la Facultad de Educación*, 5. zb., 227.-247. or.
- GOLLIN, D.; JEDWAB, R. eta VOLLRATH, D., (2013): "Urbanization with and without structural transformation", *Society for Economic Dynamics 2013 Meeting Papers*, <https://conference.nber.org/confer/2013/EFJKs13/Gollin_Jedwab_Vollrath.pdf>.
- GOMÁ, R. (2008): "La acción comunitaria: transformación social y construcción de ciudadanía", *Revista de Educación Social*, 7. zb., <<https://eduso.net/res/revista/7/marco-teorico/la-accion-comunitaria-transformacion-social-y-construccion-de-ciudadania>>.
- HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2016): *Heziberri 2020. EAeko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana: bikaintasunerantz ekitatean oinarritua*, I. g., Eusko Jaurlaritzak.
- IKUSPEGI (2023): *Atzerritar jatorriko biztanleak EAEn 2023*, Begiradak saila, 91. zb., <<https://www.ikuspegi.eus/eu/migrazioa-eta-asiloa/begiradak/ikus/91-begirada/197/>>.
- JIMENEZ-JIMENEZ, J., BOLUDA, L. eta PLANELLA, J. (2020): "El acompañamiento socioeducativo familiar como estrategia de convivencia e inclusión comunitaria: Familia Laguna programa-Ongi Etorri Eskolara", in ÁLVAREZ-REMENTERÍA, M.; DARRETXE, L.; GEZURAGA, M. eta BELOKI, N. (koord.), *Escenarios y estrategias socioeducativas para la inclusión social*, Análisis y Estudios bild., 27. zb., Bartzelona, Graó, 149.-165. or.
- KLINENBERG, E. (2018): *Palaces for the people. How to build a more equal and united society*, Londres, Penguin Random House.
- MAZA BUSTAMANTE, S. (2020): *Manual de competencias interculturales aplicadas al desarrollo de*

proyectos en la Administración Pública, l. g.,
Fundación General Universidad La Laguna.

MORALES MORALES, E. y REBOLLO IZQUIERDO, O.
(2014): "Potencialidades y límites de la acción
comunitaria como estrategia empoderadora en
el contexto actual de crisis", *Revista de Treball
Social*, 203. zb., 9.-22. or.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (2015): *Transformar nuestro
mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo
Sostenible*, Nazio Batuen Erakundearen 70.
saioa, 49. gehig., 2015-9-25.

PLANELLA, J. (2020): *Toolkit para el acompañamiento social*,
Unibertsitat Oberta de Catalunya.RAMÍREZ, N.
E. eta LECONTE, M. (2018): "La metodología
de gestión asociada: política pública desde
la intersectorialidad. El caso del proyecto
'Parque Recreativo y Cultural'", in SALINAS,

M. L. eta VALENZUELA, F. (bild.), *Actas del
XXXVIII Encuentro de Geohistoria Regional
y VIII Simposio Región y Políticas Públicas*,
Resistencia, Instituto de Investigaciones
Geohistóricas, 572.-577. or.

RUIZ-BERNARDO, P. (2018): "Los espacios y la frecuencia
de contacto con la diversidad cultural como
factores de desarrollo de la sensibilidad
intercultural", *Aposta. Revista de Ciencias
Sociales*, 76. zb., 187.-213. or.

SOLLA, C. (2013): *Guía de buenas prácticas en educación
inclusiva*, Madril, Save the Children.

WALSH, C. (2010): "Interculturalidad crítica y educación
intercultural", in VIAÑA, J.; TAPIA, L. eta WALSH,
C., *Construyendo interculturalidad crítica*, La
Paz, Instituto Internacional de Integración del
Convenio Andrés Bello, 75.-96. or.